

# Pierra Haristoy (1833-1901)



Piarres Charritton\*

*Pierra Haristoy sortu zen Aiherran 1833an eta hor berean eskolan abiatu, gero apez ikasketak Hazparnen, Larresoron eta Baionan segitu zituen. Apez egon zen Beskoitzen, Hazparnen, Zalgizen, Irisarrin eta Ziburun. Gogoan atxikiko dugu eliz eraikitzailea zela eta bestalde historialari ikertzaile (Frantziako Iraultza Euskal Herrian eta Jesu Kristoren Imitazionea eta Ebanjelioa argitaratu zituen).*

*Giltza-Hitzak: Haristoy. Dubarat. Arkeologia. Frantziako Iraultza. Euskal Herriko elizak. Iparraldeko Euskal Foruak. Elizako liburuak.*

*Pierre Haristoy naquit et commença ses études à Aiherra en 1833. Plus tard il fit ses études sacerdotales à Hazparne, Larresoro, et les continua à Bayonne. Il fut curé de Beskoitze, Hazparne, Zalgize, Irisarri et Ziburu. Nous gardons le souvenir du travailleur de l'église et du chercheur et historien (il publia La Révolution Française en Pays Basque, Imitation du Christ et l'Évangile).*

*Mots Clés: Haristoy. Dubarat. Archéologie. Révolution Française. Eglise d'Euskal Herria. Fueros Basques d'Iparralde. Registres ecclésiastiques.*

*Pierre Haristoy nació en Aiherra en el año 1833 y allí empezó a estudiar. Más tarde hizo sus estudios sacerdotales en Hazparne, Larresoro, y los continuó en Bayona. Estuvo de sacerdote en Beskoitze, Hazparne, Zalgize, Irisarri y Ziburu. Recordaremos al trabajador de la iglesia y al investigador historiador (publicó La Revolución Francesa en el País Vasco, Imitación de Cristo y el Evangelio).*

*Palabras Clave: Haristoy. Dubarat. Arqueología. Revolución Francesa. Iglesias de Euskal Herria. Fueros Vascos de Iparralde. Registros eclesiásticos.*

---

\* 3, Impasse Port Neuf. F-64100 Baiona / Bayonne.

Pierra Haristoy nor ote zen? Jadanik Jaun Auzapezak erran dizue, Aiherra Bordako semea zela jaun hori. 1833an sortu zen, laborantzatik eta artile trautik bizi zen familia batean. Pierra Haristoy-en ama, Graziana Harispuru zen eta aita berriz, Joanes Haristoy Bordako semea.

Haristoy andana bat bada bazterretan. Bazituen ordea, Haristoy hauen askazgoak bospasei lagun apez zirenak. Bat monseigneur Puyol, Baionakoa eta Erroman kargutan zena, St-Louis deitu frantsesen elizan buruzagi. Honen denboran auzi bat famatua izan baitzen Monseigneur Jauffret Baionako apezpikuaren eta Diharassary, Agorreka eta beste zenbait apezzen artean, hauetakirik zela Mendiboure Aiherrako beskoiztar apeza.

Monseigneur Puyol-en laguntzarekin beren apezpikuaren aurkako auzia irabazi zuten apez haiek Erroman eta saritzat Diharassary eta Mendiboure Monsinore tituluarekin eta xingolarekin itzuli ziren Baionara. Monseigneur Puyolek haatik ordaindu ere zuen gero bere jukutria, konkordatu legez Frantziako gobernuak kendu baitzion Erromako bere kargua.

Dena dela, Bordako familiarekin ahaide ziren bestalde, Ahurtiko Merle bi anaia apezak, aita Jarret Hazparneko misionesta eta, nahiz biziki gazteago izan, Paul Durquet kalonjea eta 1914eko gerlako kapitaina, Aiherra Larrainetik Bastida Kosturenera ezkondu Balentin Durquet-en semea.

Apeztiar familiatik zetorren beraz, Pierra Haristoy eta, gainera, Aiherran sortu zelarik, Frantziako Iraultza ez zen oraino hain urrun. Eta horrek badu bere garrantzia, 1789 ondoko gertakariak eta oroitzapenek markatuko baitute Haristoyen obra guziaz. Frantziako Iraultza denboran, Euskal Herrietan gertatu ixtorio guzieren berri biltzen ari izan baitzen, bere bizi guzian, Bordako apeza.

Hala nola, Parisen gertatu zirelarik Iraileko sarraski famatuak, *les Massacres de Septembre* deituak, Karmeldarren komentuan, askoz geroago Pio XI.ak martiren lerroan ezarriko zituen dohatsuen artean bazen Isturiztar bat, Frantses Dardan deitzen zena. Erran behar da interes handirekin bilatu zituela Haristoyek Isturitze Sarhiko seme horren biziko xehetasunak: Ikusi zuen beraz Aiherra Ardaanetik jalgitzen zirela Dardantarrak, Frantses Dardan gaztea Larresoron egona zela gaztetan ikasten eta apeztu ondoan irakasle, Pariseko Eudistetan sartu arte gero han erahila izaiteko.

Baina lehenik, Pierra Haristoy beraren historiara itzuliz, ohartzen gara, 5 urtetan abiatutik, 13 urteak bete artino, Aiherran eliza ategaineko barne ilun batean, Ziberotar gorrasta batek egiten zuen herriko eskolan ibili zela, baina goizetan bakarrik, ez omen baitziren etxeak hainbat fida Chaho famatuaren adiskide zitekeen Larraineko Etchecopar errientaren katiximari.

Bizkitartean, jakin zelarik Hazparne misionestegiko Garat-Pikasarri buruzagi sailduak Joanes Batista Lassallekoaren eskola girstinoetako anai irakasleak erakarri zituela Gaineko Karrika burura, laster Bordako bere burasok bidali zuten beren semea “freretara” ikasketak seriotan egitera.

Lagun batek geroago erran zuen bezala, haste-hastetik, Pierre Haristoyek bere gorputz larriarekin hainbeste larderia erakutsi zuen lagunen artean non haren gain izan baitzen ikaskideen laguntzea igandetan elizkizunetara eta, astegunetan ibilaldietara. Hortik landa, apezteko xedea bazuela aitortu baitzion aihertar gazteak aita Deyheralde misionestari, honek misionestegiko aldera iraganarazi zuen eta berak latina irakatsi zion bi urtez.

Orduan zuen Pierre Haristoyek berak hurbiletik ezagutu aita Garat Pikasarrri superiora: eskolako lauzpabost lagunekin gertatu zen apez sailduaren azken sakramenduen lekuko eta gero ehortzeta hunkigarrien partelier, 1848an.

Burasoek bidali zuten gero Larresoroko seminariora eta han 4.ean sartu zen, berak zioen bezala, "frantses tutik ez zekiela". Irakasle argiak aurkitu zituen, hala nola, Baionako Larran jaun apezka, Parisen eskolatua, de Montalambert jakintsuarekin adiskidetua.

Nahiz gazterik hil zen, Larran apezka, Pierre Haristoyen iduriko ikasle asko historia eta arkeologia zale egin zuen Larresoron. Eskola bereko ikaslekide eta adiskide izan ziren Hazparneko Londaitzbehere eta beste erretor lagunei zor diegu, XIX. mendearen bigarren partean eraiki zituzten eliza berri guztiak, ez bakarrik Hazparnen, baina Iparraldeko herri nagusietan, Uztaritzen, Garruzen, Donapaulen, Maulen edo Atarratzen gotiko itxura arrunt berean eginak izaita.

Dena den, Aiherra Bordako semeak, 1858an bururatu zituen ikasketak Seminario Nagusian eta urte bereko ekainaren 18an Baionako Katedralean apezte zuen. Gero, lehen lana Beskoitzeko parropan izan zuen erretor zahar baten laguntzen eta elizako zaharberritze eta handitze lanen zuzentzen.

Bi urteen buruko, Hazparneko parropan handiagora izendatu zuten Pierra Haristoy eta hor eraman zituen 8 urtetan, halako langile gaitza agertu zen non jaun erretora Erromara joanik beilari eta beste bikario lagunak, osasun eskasez, huts eginik, beregain hartu baitzuen parropiako lan guzia aihertar indartsuak eta bi gizonen soldata eman omen baitzion herriko kontseiluak. Eta hortik landa, Zibero aldera bidali zuten, Zalgizeko herrian har zezan bere lehen erretorgoa.

Zalgizeko parropiak Pierre Haristoyi zor dio geroztik, beti xutik dagoen herriko apezetxe ederra. Baina ordainez, Zalgizeko herritik hurbil baitago Iruriko jauregia, jaun erretorak etxondo horretan aurkitu zituen paper zahar eta artxibo aberatsak. Haiei esker suhartzu ahal zen, apezaren bihotz barnean pizturik zegoen historialariaren suhazia.

Zalgizen hasi lanari jarraiki zitzaion Pierre Haristoy erretor bezala Irisarriko herri gotorrean; Ezen hor ere, etxegintzan ari izan zen apezetxe berria eta seroren eskoletxea eraikitze gisan. Baina bestalde *Recherches historiques sur le Pays Basque* titulupean bi liburu gotor argitaratu zituen, Baionan, E. Lasserre baitan, 1883-1884ean.

Irisarritik landa, Ziburura erretor izendatu zuten azkenean gure langile porrokatua; han iragan baitzituen, lan eta lan, bere hondar 14 urteak.

Hor ere, etxegintza lanetan, Ziburuko erretor berriak herriko eliza ederrari erantsi zion harrizko elizate aberatsa eta bestalde katiximako haurrentzat eraiki zituen kapera berezia eta areto eroso.

Euskalzaleak aldiz ikusi zuen atseginekin bere parropiara biltzen J. B. Duvoisin ezpeletar jakintsuna, eta honek azken urteak iragan ondoan, bere liburu eta paper guztiak utzi zizkion 1891an, ondoriotasunez jaun erretorari.

Urte haietan ere *Etudes Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne* (EHRB), V. Dubarat historialari adiskidearekin zeraman aldizkarian argitaratu zituen artikulua guztien artetik atera zuen Pierre Haristoyek bere obra nagusia, *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période Révolutionnaire*, hiru tomotan bildu zena Pabeko Vignancour baitan, 1895-1901ean.

Jainkoari esker laguntzaile gazte bat igorri baitzion Baionako apezpikuak, Jean Baptiste Daranatz zeritzan Ezpeletako errientaren semea, lan gaitza egin zuten bizpahiru urtez nagusi-mutilek elkarrekin, Duvoisinen paperak eskutan zituztela eta, horrela argitaratu zituzten euskaraz *Jesu Kristoren Imitazioa* eta *Ebanjelioa*.

Zorigaitzez, jaun apezpikuak bere ondora deitu zuen laster bere idazkari-tako Daranatz bikarioa eta 1901eko otsailaren 23an Jainko Onak bereganatu zuen Ziburuko erretor kartsua. Gorputza ekarri zuten Aiherrako sorterrira eta elizatean ehortzia dago Bordako hilobian.

Aiherra Bordako apezarentzat lan asko egin duenarentzat ohi den bezala, baliteke anitz erraiteko alde edo kontra, guk bakarrik erranen dugu, erdi-askazi eta erdi herritar dugun Pierre Haristoy zenarentzat, hari esker badakigula hobeki zer den izan Hazparneko eskualdea XVIII. eta XIX. mendeetan.

Hazparneko komentu zaharra, Iraultza denbora Hazparnen, Misionestegiaren historia, Belokeko fraideen eta seroren etxeak, Hazparneko eliza, Hazparneko freren eta seroren ikastetxeak, nork dizkigu ezagutarazi, berak erranak egiaztatzeko gisan, egin dugun bezala guhaurk, adibidez, Garat Pikasarrirrentzat, Domingo Harriet Larresoar mutilaren euskarazko 30 orrialdeak aurkitu ditugularik misionestegiko liburutegian, Haristoyek baliatuak zituenak Garaten bizia kondatzeko eta Belokeko aita Iratzederri *Otoizlari* aldizkarian nihonek geroztik argitarazi dizkiodanak, Pierre Haristoy zenak ezpada?

Nik beraz mendeurrenkari, bihotzez eskerrak bihurtzen dizkiot Pierre Haristoy zenari herritar guzien izenean.